Latitude: Lurrazaleko puntu batetik ekuatorera dagoen distantzia angeluarra, delako puntutik esferaren erdigunera doan zuzenak ekuatore-planoarekin osatzen duen angeluaren bidez (0-90º) eta ipar edo hego hemisferiokoa den erantsiz adierazten dena.

Longitude: Lurrazaleko puntu batetik meridiano jakin batera, normalean Greenwichekora, dagoen distantzia angeluarra, delako puntutik iragaten den plano meridianoak erreferentzi planoarekiko osatzen duen angeluaren bidez (0-180º) eta handik ekialde edo mendebaldera dagoen erantsiz adierazten dena.

Koordenatu geografiko: Meridiano jakin batetik eta ekuatoretik abiatuz, puntu batek Lurreko gainazalean duen posizioa zehazteko koordenatu-parea (longitudea eta latitudea).